



KANALAK

HONAKO ATALEAN, BALOREZKO PROPOSAMENA
BEZEROENGANA AILEGATU DADIN, GURE
ENPRESA NOLA KOMUNIKATZEN DEN ETA BERE
MERKATU-SEGMENTUETARAINO NOLA IRISTEN
DEN DESKRIBATUKO DUGU.

GURE PRODUKTUA BEZEROENGANA HALARAZI

Bezeroarekin harremanetan jartzeko, lehenik eta behin, telebistako iragarki bat egingo dugu, modu honetan mota guztietako publikoari hel gaitezke, baina batez ere, haur eta haien gurasoei.

Gainera, katalogo bat ere sortuko dugu gure produktu berria ezagutzeko, eta hauek etxe guztietako postontzietan sartuko ditugu.

Horrez gain, gaur egun ia edonork dauka kontu bat sare sozialetan eta batez ere haurrak gero eta lehenago sabaltzen dute kontua, beraz, bertatik ere hel gaitezke gure bezeroengana. Gainera, gaur egun enpresek haien produktuak jende gehiagori heltzeko, "influencer" bidezko publizitatea egiten dute, beraz, hainbat "influencerrekin" kontaktuan jarriko gara sare sozialen bidezko publizitatea egiteko.

Azkenik, web-gune bat sortuko dugu gure produktu guztiekin, online bidez erosteko aukera emanez.

Gure produktua bezeroei banatzeko, aldiz, hainbat bide erabiliko ditugu. Gure produktua supermerkatu, gozoki-denda eta hortz-kliniken bidez banatuko ditugu.

Alde batetik supermerkatuen bidez banatuko ditugu, izan ere, jende guztiak erosteko aukera errazteko bide apoposa iruditzen zaigu.

Gozoki-dendak aldiz, gozokiak saltzeko bide bezala aukeratuko dugu, izan ere, haurrak asko joaten diren tokiak dira eta modu honetan, azukredun gozokiak erosi beharrean beraien ahoko higiena zaintzeko aukera ematen duten gozokiak erosi ahal dituzte.

Azkenik, hortz-klinikekin kontaktuan jarriko gara gure produktua pazienteei eskaintzeko. Hasiera batean, paziente guztiei proba moduan emateko izango dira, eta klinikan nahi esker, gure produktuak saltzeko aukera emango diegu.

